

## GORA SAN FERMIN! Piezen letrak

### ERRANAK / ESAPIDEAK

- Mundiala zara!
- Demontre
- Ahotik hitza kendu
- Hau giro ederra!
- Noski! Duda!
- Ziplo erori

### FORMULAK

#### Jolasean norbait egina dagoela adierazteko

- Egina zaude!
- Errea zaude!
- Safo!
- Xartela!

#### Ezkutatua zaudelarik errateko

- Kurik!

### IPUINA

#### Sanson eta Errolan

Sanson eta Errolan indar handiko bi gizon erraldoi ziren. Egun batean apustu bat jokatzea pentsatu zuten:

- Jm! Pilota apustu bat egin behar dugu, laxoan -esan zuen Errolanek-.
- Ongi da, ni Iruñeko Gaztelu plazan jarriko naiz.
- Eta ni, non jarriko naiz?
- Zu Elizondoko plazan.
- Apustuaren eguna iritsi zen eta, gainera, eguraldi ederra zuten. Sanson Iruñeko Gaztelu plazan zegoen eta Errolan Elizondoko plazan.
- Bueno, bueno, bueno, nik hemendik sakatuko dut pilota -esan zuen Errolanek.

Sakatu omen zuen, pilota jo eta, zis!! Gaztelu plazaraino bota. Han, Sansonek, zas!! Elizondora berriz. Zis! Zas! Zis! Zas! Sanson partida irabazteko irrikaz zegoen, horregatik, zuen indar guztiarekin bota nahi zuen pilota gorantz. Heldu omen zen, heldu omen zen, atzeraka, atzeraka, atzeraka... eta hainbesteko indarrez eman nahi zionez pilotari, behi kaka mukuru batean irristatu, ua! eta pilota mugaz bertzaldera bidali zuen! Eta, Mattin, berak lurrean bukatu zuen.

## JOLASAK

### **Itsu kapelu**

Itsu kapelu, non duk andrea? Sasian galdu. Bila bertzea!

### **Altxaketan kurri**

Altxaketan biriketan Iruñeko portaletan. Bizi zate?

Kurri!

## KANTUAK

### **Ttirin ttonketan**

Ttirin ttonketan,  
min dut hanketan,  
sendatuko naiz  
sanferminetan!

### **Ai, ai, ai mutilak**

Ai, ai, ai mutilak,  
zapela gorria!  
Sarjentuak mozkorra  
xarretera galdu.  
Neskatxak dirua emanda  
berria erosi du

Ai, ai, ai mutilak,  
zapela gorria!

### **Joan nintzen feriera**

Joan nintzen feriera,  
erosi nuen txakur ttiki bat.  
Txakur ttikiak iau-iau-iau!  
Joan nintzen feriera,  
erosi nuen danbor ttiki bat.  
Danbor ttikiak ttonporropotton!  
Joan nintzen feriera,  
erosi nuen txilibitu bat.  
Txilbituak txiruliruli!  
A ze mutila neguan ni!

### **ZOTZ EGITEKO**

Donilla, donilla,  
kaskara billa,  
zintare perla,  
kajaren perla,  
an ixtufa,  
martxa,  
fuera!